

# Pantaila handia kalean

Asteburu honetan, Loiolan, "Zinema kalean" egitasmoaren aurtengo lehen emanaldiak egingo dira. Abuztuaren bukaera arte, era guztietako filmak emango dira. Hona hemen, laburbilduta, aurtengo kale zine eskaintza.

## Hotzikarak Altzan

Fantasiako generoan eskaintzen handia duten zuzendarien topaleku izango da Altzako Plaza Gortia. Lehen filma Alejandro Amenabar madrildarraren "Los otros" izango da. Jaz kritikaren laudorioak eta ikusleen txaloak jasotakoak. Jim Burton klasikazinetaren "El planeta de los simios" izango da bigarren lana eta haren ondoren, Guillermo del Toro mexikarraren "El espinazo del diablo" eskainiko da. Azken hau Espainiako Gerran kokaturako beldurrezko istorioa da. "Desde el infierno" filmak aldiz XX mende hasierako Londres lanbetsuaren eraman gaitu Jack Tripakina-ren arrastotik.

**Uztailak 3:** "Los otros"

**Uztailak 4:** "El planeta de los simios"

**Uztailak 5:** "El espinazo del diablo"

**Uztailak 6:** "Desde el infierno"



## Mundura begira Kursalean

Kursaaleko terrazan AEBtako zinema ahalguztidunari itzal pixka bat egin dioten hiru film eskainiko dira, bi europarrak eta bata afrikarra. Lehen Danis Tanovic zuzendariaren "No man's land" izango da, Bosniako gerrako infernuei begirada zorrotza eman ondoren, ezustean Atzerriko Film Onenaren Oscarra irabazitakoa. Michel Ocelot senegaldarraren "Kiriku eta sorgina" filmak, aldiz, marrazki bizidunetara eraman du Afrikako herri-kulturen izpiritua. Ang Lee



zuzendariaren "Tigre y dragon" azkenik, ekialdeko ukitu magikoa duen abentura gozagarria da.

**Abuztuak 1:** "En tierra de nadie"

**Abuztuak 2:** "Kiriku eta sorgina"

**Abuztuak 3:** "Tigre y dragon"

## Monstruoak Loiolan

Gaur egungo animazio zinemaren bi harribixi eskainiko dira Loiolan: "Monstruos S.A." eta "Shrek". Biak Oscarretarako izendatuta egon ziren, baina azkenekoak etxeratu zuen saria. Aipatutako filmak AEBtako animazio ekoiztetxe indartsuenen arteko borrokaren ondorio dira. Dreamworks eta Disney. Irudimena, umorea, irudi harrigarriak eta betiko sentimenduak uztartzen dituzten pelikula bikainak dira.



**Ekainak 28:** "Monstruos S.A"

**Ekainak 29:** "Shrek"

## Akzioa Intxaurrondon

Akziozko zinemaren genero zabalean, elkarrekin zerikusi gubi duten lau film eskainiko dira Intxaurrondoko Gabriel Celaya plazan. Horietako bik zinema belikora garamatzate. Daniel Calparsoro donostiarren "Guerreros", Bosniako gerran kokatua, eta Ridley Scott estatubatuarren "Black Hawk Derribado" -AEBtako soldaduek Somaliar izandako estuasunak dakarzkiguna- Intxaurrondon emango da. Halaber, David Fincher zuzendari arakastatsuen azken filma "La habitacion del panico" -Fincherrek zeresan asko eman zuen bere gatilan "Seven" eta "Fight club" film dogorrek- eta akzio guzti honen erdian vampiro ehiztari gaitzatsua "Blade II".

**Uztailak 17:** "La habitacion del panico"

**Uztailak 18:** "Guerreros"

**Uztailak 19:** "Blade II"

**Uztailak 20:** "Black Hawk Derribado"

